# DESCRIPCIÓN

> **PUNTO DE SALIDA:** Mutriku (Gipuzkoa)
> **PUNTO DE LLEGADA:** Mutriku (Gipuzkoa)
> **ITINERARIO:** Mutriku, Ermita de Calvario, Apain, Kostolamendi, Armentxa, Santakutz, Santa Elena, Mutriku

**Se trata de una ruta que a pesar de su dificultad, merece la pena realizar por el trayecto atractivo que ofrece. Parte del pueblo pesquero de Mutriku y la primera parte de la ruta asciende pasando por la ermita de Calvario. La ruta transcurre bordeando el monte Arno para luego continuar en dirección noroeste por encima del valle de Olatz hasta llegar a Tontorramendi desde donde comenzaremos un descenso vertiginoso y técnico.**

Partimos de la plaza del ayuntamiento de Mutriku, desde donde llegamos a la rotonda situada en la carretera general para tomar la carretera que nos lleva al alto de Calvario. Seguimos durante un kilómetro por esta vía y después de pasar todas las curvas de herradura, giramos a la izquierda para tomar un camino de asfalto. Más adelante torcemos a la derecha para coger un camino de monte (cuidado con los perros del caserío que está al lado), por el que llegaremos a la ermita de Calvario [1]. Hasta este punto es todo subida, pero gracias a las vistas que este lugar nos ofrece de Mutriku y del mar, podemos aprovechar para realizar una pequeña parada y coger fuerzas para continuar.


Kostolamendi

Continuamos por el camino de asfalto que nos lleva a cruzar la carretera justo por el alto de Calvario. Al cruzar la carretera nos encontramos con un panel de información y seguimos recto por el camino de hormigón. Después de pasar unos caseríos y el frontón de Arnope, tomamos un camino de monte por el que subimos hasta que nos encontramos con una barrera. La cruzamos y comenzamos a circular por un sendero bastante peligroso, pues tiene muchas piedras sueltas que pueden facilitar la caída del ciclista.

Una vez pasado el sendero, llegamos al caserío Abetexe. Justo en el cruce que esta situado en este punto, giramos a derecha y bajamos por un camino carretero hasta alcanzar la carretera GI-3562.

Giramos a la izquierda en el cruce con la carretera y continuamos hacia el valle de Olatz [2]. Atravesamos este bonito y tranquilo valle, para continuar por trazado del Camino de Santiago. Seguimos por este camino hasta el alto donde se encuentra el caserío de Kostolalmendi.

Nos dirigimos hacia el caserío, lo rebasamos y seguimos por camino de monte hasta los caseríos de Armentxa [4]. Abandonamos el camino de monte y giramos a la izquierda para incorporarnos a una pista de hormigón, que más adelante abandonaremos para tomar la pista de monte que nos llevará a un alto en el que hay unas antenas. Este es el monte Tontorramendi.

Al comienzo de la bajada, pasamos por la ermita de Santakutz [5], desde la que podemos ver Ondarroa y Mutriku. Es aquí donde empezamos una larga bajada. La primera parte de la misma hasta llegar a un caserío, se realiza sin apenas dificultas pero los problemas comienzan justo al cruzar una barrera al lado del citado caserío. De aquí parte una bajada muy peligrosa por un camino estrecho y con bastante piedra suelta. Al llegar abajo, nos encontramos con la carretera general de Mutriku-Ondarroa para girar a la izquierda y durante 200 metros más adelante, abandonamos la carretera girando a la derecha. Tomando el recorrido del GR, ascendemos por una cuesta que nos lleva a un sendero en el que más adelante tendremos un tramo bastante exigente de subida.

Una vez terminada la subida, nos podemos deleitar con unas espectaculares vistas de los acantilados de la zona. El camino transcurre por las inmediaciones de los tres camping del lugar hasta llegar a Mutriku. Cuando entramos en la citada población, encontramos un panel de información y una zona de columpios desde donde podemos ver el puerto de Mutriku y toda la costa.

Continuamos recto para circular por medio de las calles del núcleo urbano y llegar hasta la plaza del ayuntamiento. Punto de partida de la ruta.

# IKUSTEKO

**>> Euskal Kostaldeko Geoparkea (Mutriku, Deba, Zumaia)**

Murgildu gure planetaren iraganean eta ezkutatzen dituen misteriotan, Flyscharen edota Karstaren Ibilbideetan barrena. Gozatu naturaz, bertako kulturaz, eta ezagutu bertako tradizio eta gastronomia.
**www.geoparkea.com**

**>> Mendi Ibilbideak**

Eskualde guztian zehar, homologaturiko hainbat eta hainbat mendi ibilbidez gozatzeko aukera izango duzu.

**>> Museoak**

- **Bentalekua**, Mutrikun.
- **Nautilus**, Mutrikuko Ikasgune Geologikoa.
- **Makina Erremintaren Museoa**, Elgoibarren.
- **Mufomi**, Fosil eta Mineralen Museoa, Elgoibarren.
- **Armagintzaren Museoa**, Eibarren.

**>> Aire libreko aktibitateak**

Mendi ibilbideak, itsas-irteerak, zaldi-irteerak, paintballa, kapeak, piraguak, urpekaritza, BTTz bisita gidatuak...

## IBILBIDE HAU EGITEN BADUZU, BISITATU:

- **Nautilus**, Mutrikuko Ikasgune Geologia.
- **Bentalekua Museoa**.
- **Euskal Kostaldeko Geoparkea**: Flyscharen eta Karstaren ibilbidea.

Informazio gehiago:
**www.debabarrenaturismo.com**

# QUÉ VER

**>> Geoparque de la Costa Vasca (Mutriku, Deba, Zumaia)**

Explora el pasado del planeta e indaga en sus misterios a través de la Ruta del Flysch o la Ruta del Karst. Disfruta de la naturaleza y conecta con las tradiciones, la cultura local del territorio y su gastronomía.
**www.geoparkea.com**

**>> Senderos**

En nuestra comarca los amantes del senderismo encontrarán diferentes rutas homologadas que transcurren por preciosos espacios naturales.

**>> Museos**

- **Bentalekua**, Mutriku.
- **Nautilus**, Centro de Interpretación Geológica de Mutriku.
- **Museo de la Máquina Herramienta**, Elgoibar.
- **Mufomi**, Fósiles y Minerales, Elgoibar.
- **Museo de la Industria Armera**, Eibar.

**>> Actividades al aire libre**

Senderismo, paseos en barco, paseos a caballo, paintball, capeas, piraguas, buceo, visitas guiadas de BTT...

## SI HACES ESTA RUTA, VISITA:

- **Nautilus**, Centro de Interpretación Geológica de Mutriku.
- El **Museo Bentalekua**.
- El **Geoparque de la Costa Vasca**: Ruta del Flysch y Ruta del Karst.

Más información:
**www.debabarrenaturismo.com**

deba BARRENA

BTT EUSKADI



# RUTA IBILBIDEA 12. MUTRIKU BIRA

ZAILTASUNA :: OSO ZAILA
DIFICULTAD :: MUY DIFÍCIL



DISTANTZIA / DISTANCIA **20,7 km**
DESNIBEL POSITIBOA / DESNIVEL POSITIVO **834 m**
IRAUPENA / DURACIÓN **2:30**

# DESKRIBAPENA

> **ABIAPUNTA:** Mutriku (Gipuzkoa)
> **HELMUGA:** Mutriku (Gipuzkoa)
> **IBILBIDEA:** Mutriku, Kalbarioko ermita, Apain, Kostolamendi, Armentxa, Santakutz, Santa Elena, Mutriku

**Nahiz eta ibilbide zaila izan, oso gomendagarria da, toki oso ederra baita. Mutriku arrantza-herritik abiatzen da. Ibilbidearen lehen zatia aldapan gora egingo dugu, Kalbarioko ermitatik pasatuta. Ibilbideak Arno mendia inguratu ondoren ipar-mendebaldetik jarraitzen du, Olatz bailararen gainetik Tontorramendiraino. Hortik jaitsiera aldapatsu eta tekniko bat hasiko dugu.**

Mutrikuko udaletxe aurreko plazatik abiatuko gara, eta hortik errepide nagusiko biribilgunera helduko gara. Inguru horretan, Kalbarioko gainera heltzeko errepidea hartuko dugu. Bide horretan kilometro bat ibili ondoren eta ferra formako kurbak pasatu ondoren, ezkerretara jo eta asfaltozko bide batean sartuko gara. Aurrerago, eskuinetara hartu eta mendi bide batean sartuko gara (kontuz ondoko baserriko txakurrekin). Hortik aurrera, Kalbarioko ermitara [1] helduko gara. Horraino dena igoera da. Edonola ere, inguru honetan Mutrikuren eta itsasoaren ikuspegi ederrak daude. Toki atsegina, inondik ere, atseden hartzeko eta indarrak berritzeko.

Kalbarioko gainetik errepidea gurutzatzera beharko gaituen asfaltozko bidetik jarraituko dugu. Errepidea gurutzatutakoan, argibide-taula bat ikusiko dugu eta hormigoizko bidetik zuzen jarraituko dugu. Baserri batzuk eta Arnopeko pilotalekua igaro ondoren, mendi bidean sartuko gara eta hortik gora egingo dugu hesi batekin aurrez aurre topo egin arte. Hesia zeharkatu eta bidezidor arriskutsu samar batean abiatuko gara, harkaskar ugari dagoenez, txirrindularia erortzeko arriskua baitago.

Bidexka igaro eta Abetxe baserrira helduko gara. Bidegurutze batekin egingo dugu topo, eskuinetara hartu eta errepide tankerako bide batetik jaitsiko gara, GI-3562 errepidera heldu arte.

Bidexka eta errepidearen arteko bidegurutzean ezkerretara jo eta aurrera jarraituko dugu, Olatz bailarako norabidean [2]. Bailara eder eta lasai hori igaro, eta Done Jakue Bidetik jarraituko dugu. Bide horretatik jarraituko dugu Kostolamendi baserriko gainera heldu arte.

Baserria igaro ostean, mendiko bidetik jarraituko dugu Armentxa inguruko baserrietaraino [4]. Mendi bidea alde batera utzi eta ezkerretara joko dugu. Orduan hormigoizko bide bat hartu eta aurreraxeago alde batera utziko dugu, zenbait antena dituen goragune batera doan mendiko bidea hartuko baitugu. Tontorramendi gainera helduko gara.

Jaitsen hasi orduko, Santakutz [5] ermita igaroko dugu. Hortik Ondarroa eta Mutriku ikusten dira. Jaitsiera luzea izango dugu aurrez aurre. Lehen zatia, zailtasun handiegirik gabea, baserri batean amaituko da. Baserri ondoko hesia igaro eta berehala hasiko dira arazoak, jaitsiera arriskutsu bilakatuko baita, harkaskar ugariko bide estuan izango baitugu. Behera heltzean, Mutriku eta Ondarroa lotzen dituen errepide nagusira aterako gara. Ezkerretara hartu, 200 bat metro aurrerago eskuinetara jo eta errepidea utziko dugu. GRaren ibilbidea hartu eta aldapa bat igoko dugu. Aldapa horretatik bidexka batean aterako gara, eta, aurreraxeago, igoera gogor samar bat izango dugu.

Igotakoan, inguru horietako labar ikaragarriak ikusteko aukera izango dugu. Bidea bertako hiru kanpinen ingurutik igarotzen da, Mutrikuraino iritsi bitartean. Herrian sartu eta argibide-taula bat ikusiko dugu, baita zabuak dituen gunetxo bat ere. Bertan, Mutrikuko portua eta kostalde osoa begiztatzeko aukera izango dugu.

Zuzen jarraituko dugu aurrera; hiriguneko kaleen artetik igaro eta udaletxe aurreko plazara helduko gara. Ibilbidearen hasierara.


Santakutz ermita
Ermita de Santakutz

## PROFILA
## PERFIL




| DISTANTZIA | DESNIBEL POSITIBOA | IRAUPENA |
|---|---|---|
| 20,7 km | 834 | 2:30 |
| DISTANCIA | DESNIVEL POSITIVO | DURACIÓN |

## LEGENDA
## LEYENDA

**IBILBIDEA / RUTA**

- Harrera puntua / Punto de acogida
- Infomazio puntua / Punto de información
- Irteera puntua / Punto de salida
- Garbitzeko tokia / Punto de lavado
- Bizikleten konponketa / Reparación de bicicletas
- Dutxak / Duchas
- WC Zerbitzuak / Servicios
- Aparkalekua / Parking
- Ibilbidea eta norabidea / Ruta y dirección
- Basoa / Masa arbolada

**INTERES TURISTIKOA / INTERÉS TURÍSTICO**

- Kulturala / Cultural
- Arkitektonikoa / Arquiectónico
- Paisaia / Paisajístico
- Erlijioa / Religioso
- Arkeologia / Arqueológico
- Naturala / Naturalistico
- Hezitzailea / Educativo
- Aisia gunea / Zona de esparcimiento
- Hondartza / Playa
- Tren geltokia / Estación de tren
- Ospitalea / Hospital

**OSTATUAK / ALOJAMIENTOS**

- Nekazalturismoa / Agroturismo
- Aterpetxea / Albergue
- AT Apartamentua / Apartamento
- Kanpina / Camping
- CR Landetxea / Casa Rural
- H Hotela / Hotel
- Ostatu-etxea / Pensión




